Azpeitiko Udala

AZPEITIKO HAURREN ETA GAZTEEN ARLO TEKNIKOA ETA UDAL LUDOTEKAK, GAZTELEKUA, ETA OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAK ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOAK.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea, Azpeitiko Udalak, bere gazteria politikaren barruan Azpeitiko Haurren eta Gazteen arlo teknikoa eta Udal Ludotekak, Gaztelekua eta oporraldiko ekintza bereziak antolatzeko zerbitzuak esleitzeko baldintza teknikoak arautzea da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteak Sustatzeko Sistema, Gaztematika, oinarritzat hartuta.

2.-JUSTIFIKAZIOA

12/2019 Foru Dekretua, apirilaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea sortzeari buruzkoa, GAZTEMATIKA izeneko Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea sortzen da.

Sarearen xede bakarra izango da haur eta gazteen sustapenerako politikak bultzatu eta indartzea, eta, bestalde, arlo horretan esperientziak eta jardunbide egokiak trukatu eta elkarrengandik ikastea, eta Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana sendotzea.

Gaztematika lanerako sarea baino gehiago da: haur, nerabe eta gazteen sustapena ulertzeko modu bat da.

Gaztematiko oinarrietako bat Continuum-a da. Sustapena etenik gabeko prozesu luzea eta koherentea da. Haurrekin hasten gara lanean, gero nerabe eta gazteekin jarraitzeko. Adin guztiekin egin behar dugu lan, heldu izatera iritsi arte.

Kontratua loteetan ez banatzeko arrazoiak hauek dira:

- Zerbitzuen arteko zubia eta koordinazio jarraitua izatea ezinbestekoa da zerbitzu egokia ahalbidetzeko.

- Zerbitzuetako kideak, lantalde berdineko partaide direla sentitzea oso garrantzitsua da.

3.- JARDUERA ARLOAK

Haur, nerabe eta gazteen sustapenaren zerbitzuen jarduera arlo hauek izango dira:

Informazioa: Haurrari edo gazteari interesatzen zaizkion edo berekin lotura duten gai, baliabide edo prozesuen berri emango zaie.

Orientazioa: Interesatzen zaizkien edo beraiengan eragina duten gai edo arazoen inguruan laguntza puntuala emango zaie, dauden aukerak ezagutu eta erabakiak hartu ahal izateko.

Bide-laguntza: Bidean, etapa bakoitzean, eta trantsizioetan lagundu behar zaie dagozkien gai edo arazoen inguruan erabakiak hartu, jarduerak burutu eta loturak sortzeko. Harreman horrek nolabaiteko egonkortasuna eta jarraipena izan behar ditu.

Aisia hezitzailea: Aisaldian egindako esku-hartzea da. Jolas ekintzen bitartez, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak barneratzen eta garatu behar dituzte.

Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak: Haurrek eta gazteek iritziak eman, proposatu, erabakiak hartu, erantzukizunak beren gain hartu, kudeatu edo kideekin kudeatu ahal izateko, aukerak sortzea eta dinamizatu beharko dira.

Sorkuntzarako eta produkziorako laguntzak: Banakako nahiz taldeko hainbat jarduera eta proiektu garatzeko beharko aukerak sortzen eta dinamizatuko dira, haur, nerabe eta gazteek sorkuntzarako eta produkziorako duten gaitasuna indartu eta bidera dezaten.

4.- ZEHAR LERROAK

Zeharkako lerroak Gazteria Politikaren ustez, zeharkakoak dira zerbitzuan garatutako jarduera guztietan egon behar duten lan lerroek:
-**Euskaraz** hazi eta hezi. Aisialdian ere euskararen erabilera sustatzea
-Haur guztien arteko aukera **berdintasuna**.
-**Inklusioa-integrazioa:** ezgaitasunen bat duten edo gizarte abileziarik ez duten haurrak, etorkinak, etab.

5.- ZERBITZUEN DEFINIZIOA

Kontratuaren eginkizuna haur, nerabe eta gazteen aldeko zerbitzuetara arreta eman eta kudeaketa lanak egitea da, lan hori plegu honetan ezarritakoaren arabera eta Hezkuntza Zerbitzuarekin koordinatuta egingo da, bere jarraibideak betez.

ZERBITZUEZ GAIN HAUR ETA NERABEEI DAGOZKIEN UDAL PROIEKTUAK AURRERA ERAMATEA

Azpeitiko Udala herri mailan herri hezitzaile egitasmoaren filosofiaren baitan lan egiten du. Azken urteetan hainbat ekimen eta proiektu jarri dira martxan.

Programa hauek haurren parte hartzea sustatzea dute helburu haurren iritzia jasoaz herriko erabakietan parte hartze aktiboa izango dutelarik.

Azpeitiko Udalak haur, nerabe eta gazteei dagokienez duen ardura da haiek babesteaz gain, haien sustapena bultzatzea du helburu. Izan ere, babesa, prebentzioa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira haur, nerabe eta gazteen garapen integralerako.

Azpeitiko Udalak hori ahalbidetzeko, Hezkuntza eta Gazteriako hainbat lan ildo martxan jarri ditu gazteria politiken bi norabideak lantzeko asmoz:

- Haurrak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera sektoriala eta espezifikoa: hartzaile hauekin zuzenean eta haientzat lantzen diren politikak.

- Haurrak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera integrala eta zeharkakoa: haurtzaroko, nerabezaroko eta gaztaroko egoerez edo prozesuez espezifikoki edo sektorialki arduratzen ez diren udal sailekin batera lantzen direnak.

Lan ildo nagusietako bi dira haur, nerabe eta gazteen eskubideak ezagutzera eman eta hauek praktikan jartzea eta udalerri hezitzailea sustatzea. Lanketa hau ez da haurtzaroan hasi eta amaitzen, ez eta hezkuntza formalera mugatzen. Komunitate ikuspegi batetik jorratzen da hezkuntza, herriko eragileekin elkarlanean eta haurren, nerabeen eta gazteen eskubideetan sakontzeko lanean jarduten da udaleko hainbat sailekin elkarlanean.

Azpeitia 2030 Plan Estrategikoan adierazten den moduan, "zeharkakotasunez, aipagarria da: haur, nerabe eta gazteei dagokionez elementu bereizgarria eta egituratzailea bilakatu dela, hauek, herriko gobernantzan zuzenean parte harhartzen duten eragile aktibo bezala kontsideratzeko burutzen ari den lanketa.

6.- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK.

6.1. LUDOTEKA

5-12 urte (biak barne) arteko haurrei zuzendua dago eta izaera guztietako haurren parte hartzea ahalbideratu beharko du.

6.2. GAZTELEKUA

13-17 urte arteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzua da.

6.3. OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK

Azpeitiko haurrei zuzendutako aisialdi eskaintza da eta izaera guztietako haurren parte hartzea ahalbideratu beharko du.

Urtean hiru ekintza berezi egitea aurreikusten da gutxienez:

- Aste Santuko oporraldian (5-17 urte arteko haur eta nerabeak).
- Udako oporretan (2-17 urte arteko haur eta nerabeak).
- Gabonetako oporretan (5-17 urte bitarte-ko haur eta nerabeak)

Zerbitzuen hartzaileek, eskainitako programaren eta adierazitako jarraibideen ildotik, zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko eskubidea izango dute.

Jardueren hartzaileen eskura jarritako ekipamendua eta materiala, honen helburuaren arabera, errespetatu eta erabiltzeko betebeharra izango dute.

7. ZERBITZUEN HELBURUAK.

7.1. LUDOTEKA

Azpeitiko Udaleko Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordearen menpe dagoen zerbitzua da, 5 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutakoa, eta hor parte hartzen duten haurren eskura joku eta jostailuz hornituriko espazio edukatibo bat eskaintzen zaie. Heziketa proiektu baten laguntzaz eta denbora librean ekintza ludikoen bitartez epe ertainera haur horien garapen sozial, afektibo eta kognitiboa bultzatzea du helburu, beste haur, guraso eta hezitzaileekin dituzten harremanak landuz.

Helburu zehatzak:

a) Jolasa eta ekintza ludikoa denbora librerako baliabide hezitzaile eta sortzaile moduan erabiltzea bultzatu.

b) Haurraren garapen kognitiboa, psikomotorea, sortzailea eta afektiboa sustatuko duen jarduera ludikoak sortu eta bideratu.

c) Protagonismoa haurrari berari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan, heldu hezitzailearen erantzukizuna sustatzearena izanik.

d) Haurren autonomia lantzea, eta horretarako izaera kritiko eta iniziatiba gaitasuna daukaten pertsonen garapen integrala erraztuko duten baliabideez hornitutako ekipamendua sortu.

e) Ondorengo ardatzekin zerikusia duten ohiturak eta portaera ildoak sustatu: errespetua, elkarbizitza, lankidetza, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna, solidaritatea, aniztasunaren baloreak indartu, tolerantzia, baterako hezkuntza eta aniztasunarekiko errespetua.

f) Osasunerako hezi, egunerokotasunetik hasita higiene ohiturak sustatuz.

g) Haurrengan ekintza berritzaileak sustatzen dituzten egoera eta tresna edukatiboak ahalbidetu.

h) Ezintasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten haurrak ludotekan integratu.

i) Zerbitzuarekiko elkarbizitza egoki bat izatearen alde jokatu, ezberdintasunarekiko eskubidea errespetatuz.

j) Elkarren arteko harremanetarako espazioak eskaini talde naturaletan lan eginez, haurren integrazioa laguntzen duten alderdiak bultzatuz.

k) Prebentzio inespezifiko baten ikuspuntutik lan egin, inguruko haur populazioaren beharrak antzemanaz.

l) Ludotekaren garapenean haur eta gurasoen inplikazioa sustatu.

m) Aisialdiko ekimen guztietan euskararen erabilera sustatu eta bermatu.

n) Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatu zerbitzuan, baita Ludotekatik bideraturiko ekimen guztietan ere.

ñ) Informazioa: haurrarentzat edo gaztearentzat interesgarriak diren gaiei edo baliabideei buruzko datu baliagarriak ematea.

o) Orientazioa: haurrek eta gazteek alternatibak identifikatzen eta erabakiak hartzen ikas dezaten, laguntza puntuala emanez.

p) Bide-laguntza: haurrek eta gazteek erabakiak hartu, jarduerak burutu eta loturak sortzeko laguntza eta jarraipena eskaintzea.

7.2. GAZTELEKUA:

13 eta 17 urte arteko nerabeei zuzendutako zerbitzua da eta batez ere, aisiaren esparruan nerabeei beste aukera batzuk eskaintzea da helburua nagusia.

Helburu zehatzak

1) Nerabeen jarrera aktiboa sustatzea. Autokudeaketa bultzatzea.

2) Nerabeen gaitasunak piztu eta bultzatzeko bitartekoak ipintzea. Nerabeak aisialdiaz era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.

3) Nerabeak autonomia lantzea.

4) Kritikotasuna lantzea. Eguneroko gorabeheretan, arazo edo jarrera ez ohikoetan hausnarketarako bidea hartzea.

5) Prebentzioa lantzea. Nerabeek adin honetan dituzten prebentzioen behar nagusienak, droga, kontsumoak, sexualitatea eta elikadura arloan.

6) Aisialdian euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea. Euskararen egoeraren inguruko kontzientzia piztea eta euskararen aldeko eragile zuzen bihurtzea gazteak eta euskal kultura sustatzea.

7) Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea zerbitzuan baita zerbitzutik bideraturiko ekimen guztietan ere.

8) Nerabeei ondo pasatzeko aukerak eskaintzeaz gain, pertsona arduratsuak, orekatuak eta eragileak izatera bultzatzea.

9) Inklusioa sustatzea.

9) Informazioa: nerabeentzat interesgarriak diren gaiei edo baliabideei buruzko datu baliagarriak ematea.

10) Orientazioa: nerabeei alternatibak identifikatzen eta erabakiak hartzen ikas dezaten, laguntza puntuala emanez.

11) Bide-laguntza: nerabeei erabakiak hartu, jarduerak burutu eta loturak sortzeko laguntza eta jarraipena eskaintzea.

12) Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetza, elkartasuna eta justizia soziala.

13) Helduen gizarteari nerabezaroa eta nerabeek aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea. Nerabe-izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.

14) Gurasoekin eta beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

15) Nerabeez arduratzen diren beste baliabide batzuetako profesionalekin (ikastetxeak, gurasoak, gizarte-zerbitzuak...) haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea. Sareko lan sistema komunitarioan parte hartzea.

16) Nerabe-izaerak ulertzen eta kudeatzen laguntzea. Ingurune ez formal eta ludiko batean beraien izaera modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.

17) Aisialdirako modu desberdinak, suspergarriak eta sortzaileak ahalbidetzea.

18) Jarduerak antolatzeko, nork bere burua antolatzeko eta nork bere denborak kudeatzeko nerabeek egiten dituzten proposamenak jaso eta erraztea.

19) Ekipamenduan eta ekipamendutik kanpo talde-bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea eta suspertzea .

7.3. OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK

Azpeitiko haur eta nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza da eta izaera guztietako haur eta nerabeen parte hartzea ahalbideratu beharko du. Urtean hiru ekintza berezi egitea aurreikusten da gutxienez: Aste Santuko oporretan, Udako oporretan eta Gabonetako oporretan.

Programa osatu eta anitz baten bidez, aisialdi eremu batean parte hartzaileen garapen sortzailea eta artistikoa lantzea izango da oporraldietako ekintza berezi hauen helburua.

Helburu zehatzak:

- Gozamen eta dibertsiorako esparru ludikoa eskaintzea.
  - ✓ Oporraldiez gozatzen lagundu
  - ✓ Jolasteko aukerak eskaini eta esperientzia berriak izateko aukerak eman.
  - ✓ Haurrek beraien ingurua ezagutu dezatela.
  - ✓ Aisialdi alternatiboa eskaini.
- Partaideen autonomia pertsonala ahalbidetuko duen esparrua eskaintzea.
  - ✓ Haurrei eta nerabeei erabakiak hartzeko aukera ematea.
  - ✓ Haurrei eta nerabeei egitasmoaren partaide direla sentiaraztea.
  - ✓ Herriko haur eta nerabeen arteko harremanak sortu eta sendotzea.
  - ✓ Herri bizitzan parte hartzeko bideak eskainiz herri sentimendua handitzea.
- Elkarbizitza eta lankidetza espazio bat eskaintzea neska-mutikoei, era aske batean eta bere interesen arabera, harreman, formazio eta dibertsiorako esparru guztietan parte hartu ahal dezaten.

✓ Aukera berdintasuna lortzea.

✓ Ikastetxe ezberdinetako haurren arteko harremana bultzatu.

✓ Eredu estereotipatuak gainditzea.

✓ Haur eta nerabeen elkarren arteko lankidetza handitzea.

✓ Jarduera guztietan, bai neska, bai mutilen parte hartzea lortzea.

✓ Aniztasunaren eskubidea eta gizabanako desberdintasunen kontzientzia hartzea.

✓ Bestearen eboluzio erritmoaren onarpena lortzea.

- Euskara sustatzea:
  - ✓ Oporraldian euskaraz bizitzea eta/edo euskaraz bizitzen ahalegintzea.
  - ✓ Euskal kulturara hurbilketa bideratzea.
- Familia eta lanaren arteko kontziliazioan laguntzea.

Elkarren arteko harremanetarako espazioak eskaini talde naturaletan lan eginez, haurren integrazioa laguntzen duten aspektuak bultzatuz.

- Herri bizitza sustatzea eta herriko elkarte eta eragileekin elkarlana bideratzea haurren herriko partaidetza sustatzeko.

✓ Azpeitiko inguru naturala ezagutu.

✓ Azpeitiaren ezagupen fisikoa, herriko ohiturak eta kultur baliabideak ezagutarazi

- Partaide guztien segurtasuna uneoro bermatzea.

8.1. LUDOTEKAK:

Kontratistak, Done Jakue 1eko (ITURRITXIKI) eta Jose Antonio Agirre plaza 2-3ko (TXIKITXOKO) eraikinetan Udalak egokituak dituen lokaletan, udal ludoteka zerbitzua eskainiko du. Zerbitzu hau emateak, besteak beste, ondorengo konpromiso eta betebeharrak eskatzen ditu:

Azpeitiko Udalaren betebeharrak:

1) Lokalak uztea, bertako altzari eta oinarrizko ekipamenduarekin.

2) Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.

3) Programen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordearen bitartez.

Kontratistaren betebeharrak:

Jarduerei dagokienez:

- Ludotekaren eskaintzaren dinamizazioa: jolasak, tailerrak, ikastaroak, emanaldiak, irteerak...
- Ludotekatik kanpo burutzekoak diren kultura eta jolas-ekintzak antolatzea.
- Auzo zein herri mailan antolatzen diren ekimen interesgarrietan parte hartzea.

- Antzemandako beharrei erantzuteko egingo diren programak diseinatu eta gauzatzea.

- Lokal eta bulegoaren txukuntasun eta mantentze lanen jarraipena eta kontrola.

- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren kudeaketa eta administrazio betebeharrak egitea.

- Ludotekan parte hartzeko eskaerez eta ordainketen kudeaketaz arduratzea.

- Materialaren (inbentarioa) eta bazkideen erregistroa eramatea (altak eta bajak).

- Haurrek izena eman dezaten zabalkunde- kanpainak egitea.

Ikasturteko programa landu eta hilabeteko programazioa prestatu eta zabaltzea.

Ebaluazioari dagokionez:

1. 3 hilabetero balorazio txosten bat egingo da Hezkuntza zerbitzuari aurkeztuko zaiona.

2. Ikasturtea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean urteko balorazio-txostena aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, ikasturtearen nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoen, eta abarren berri emanez.

Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearekin izan beharreko koordinazio eta kudeaketari dagokionez:

1. Erabiltzaileen eskaerak onartzerakoan Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak ezarritako irizpideak kontutan hartzea (ratioak, gehienezko haur kopurua, haurrak herrian bizitzea, hauen adina eta abar).

2. Materialaren eta bazkideen erregistroen kopia bat Hezkuntza Zerbitzura helaraztea.

3. Haur eta nerabeen izen emate kanpainarako zabaltzen den material ezberdinak Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearen oniritzia izan behar du.

4. Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak urteroko kuotak finkatu eta onartuko ditu. Esleipenduna kuotak kobratzeaz arduratuko da eta behin ordainketak egin ondoren Udalari helaraziko dizkio.

5. Ikasturterako programa Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeari aurkeztuko zaio ikasturtea hasi aurreko hilean.

6. Programazio horretan aurreikusita ez dagoen edozein ekintza egin ahal izateko nahitaezkoa izango da Udal baimena (Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordea). Ekintza berria aztertu ahal izateko beharrezkoa den denborarekin aurkeztuko da.

7. Gutxienez, hiru ebaluazio bilera egingo dira urtean, urteko hiru oporraldien inguruan, Udalaren Hezkuntza zerbitzuko arduradunekin, eta teknikari eta arduradun politikoekin. Bertan, aurreko hiruhilabetekoari dagokion txostena aurkeztuko da. Txosten horretan balorazioa egin eta hurrengo hiruhilabeteko eskaintza programaren proposamena aztertu beharko da. Horrez gain, txosten horietan eranskin bat aurkeztu beharko du kontratistak, hiruhilabeteko horretan zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagozkien gastuen balantzea eta fakturak eta ziurtagiriak azalduz.

8. Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeko lan taldean parte hartzea, horrela eskatzen zaionean.

9. Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adieraztea.

10. Elkarren arteko adostasunez Azpeitiko Udaleko Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak eta kontratistak funtzionamendurako erabakitako irizpide eta jarraibideak betetzea.

8.2. GAZTELEKUA.

Udalak horretarako egokituko duen lokalean kontratistak gazteleku zerbitzua eskainiko du. Zerbitzu honen prestazioak besteak beste ondorengo konpromiso eta betebeharrak eskatzen ditu:

Azpeitiko Udalaren betebeharrak:

1. Lokala, bertako altzari eta oinarrizko ekipamendua uztea.

2. Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.

3. Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearen bitartez.

Kontratistaren betebeharrak:

Jarduerari buruz:

Nerabeen informazio beharrak ezagutu eta asetzeko estrategiak martxan jartzea.

Gizarte-heziketarako harreman guneak sortzea, mota ezberdinetako harremanak, nerabe eta hezitzaileen artekoak, nerabeak euren artean.

Azpeitiko elkarteen artean elkarlana sustatzea, herriko baliabideak ezagutaraziz eta herriko ekintzetan gazteek parte hartzeko bitartekoak jarriz. Hau da, herrian antolatzen diren ekintza ezberdinetan parte-hartzera bultzatzea.

Hezkidetza, integrazioa, parte hartzea eta autokudeaketa bultzatuko dituen gune bat ahal- bideratzea, auzoko eta herriko errealitatearekin konprometitua.

Helduei (guraso, tutore eta, oro har, arduradunak) nerabeen errealitatea ezagutzen laguntzea (azturak, pertzeptzioak, eskaerak, etab.) eta, ahal den neurrian, komunikaziorako eta lankidetzarako bideak zabaltzea.

Ebaluazioari buruz:

1. 3 hilabetero balorazio txosten bat egingo da (Hezkuntza zerbitzuari aurkeztuko zaiona).

2. Ikasturtea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean urteko balorazio-txostena aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, ikasturtearen nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoen, etab- en berri emanez.

Kudeaketa eta Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearekin koordinazioari buruz:

1. Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adieraztea.

2. Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren administrazio betebeharrak egitea.

8.3. OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK:

Aldez aurretik Udalak ikastetxeekin adostutako eran, udal instalazioetan eta herrian zehar eskainiko da zerbitzua.

Azpeitiko Udalaren betebeharrak:

1. Ekintzak hasi aurretik, ikastetxe eta kiroldegiko arduradunekin udalekuentzako instalazioen erabilera adostea.

2. Ezarritako epeen barruan ordaintzea fakturak.

3. Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearen bitartez.

Kontratistaren betebeharrak:

Jarduerari buruz:

1. Ekintza berezien programa eta antolaketa guztia egin eta proiektuaren eskaintzaren dinamizazioaz arduratuko dira (begirale nahiz haur eta nerabeen izen emate kanpainatik hasita, azken memoria entregatu arteko prozesu guztiaz). Antzemandako beharrei erantzuteko egingo diren programak diseinatu eta gauzatu.

2. Aurrez eta urtean zehar ekintza edo irteera ezberdinak programatuko dira gutxienez, jarraian zehazten diren oporraldietan:

- Aste Santuko oporraldian (5 eta 17 urte arteko haur eta nerabeak).
- Udako oporretan (2 eta 17 urte arteko haur eta nerabeak).
- Gabonetako oporretan (5 eta 17 urte arteko haur eta nerabeak).

Goizeko ekintzek ordutegi hau beteko dute: 10:00tatik 13:00tara.

Irteerak ordutegi hau beteko dute: 10:00tatik 17:30tara.

Irteera bereziak ere zeintzuk diren adierazi beharko dira.

Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren administrazio betebeharrak betetzea.

Ebaluazioari dagokionez:

- Ekintza berezien amaieran, jardueraren memoria egitea (besteak beste, izandako garapena, funtzionamendua, datu estatistikoak, jarraipen fitxak eta ebaluazioa barne). Gainera hurrengo ikasturterako hobekuntzen proposamenik balego, horiek ere sartuko dira.

Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordearekin izan beharreko koordinazio eta kudeaketari dagokiona:

Ekintza berezietan parte hartzeko eskaerez eta ordainketen kudeaketaz arduratzea.

Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adierazi.

Ekintza berezi bakoitzaren programazioa ekintza gauzatu baino hilabete baino lehen Hezkuntza zerbitzuan entregatzea.

Behin izen emateak amaitu eta haur kopurua zehaztua dagoenean, ekintza berezi horietan parte hartuko duten begiraleen behin betiko zerrenda entregatzea (izen-deiturak, nortasun agiriaren fotokopia, eskatzen den bakoitzaren titulazioaren ziurtagiria eta C1 titulua edo baliokidearen ziurtagiria).

Programazio horretan aurreikusita ez dagoen edozein ekintza egin ahal izateko nahitaezkoa izango da Udal baimena, Hezkuntza Zerbitzuaren bitartez. Ekintza berria aztertu ahal izateko beharrezkoa den denborarekin aurkeztuko da.

Festak, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak ekintza berezien kuotak finkatu eta onartuko ditu. Kontratista kuotak jasotzeaz arduratuko da eta behin ordainketak egin ondoren Udalari helaraziko dizkio.

Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren administrazio betebeharrak egitea.

Elkarren arteko adostasunez Azpeitiko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak eta kontratistak funtzionamendurako erabakitako irizpide eta jarraibideak betetzea.

9. KOORDINAZIOA: Kontratuaren koordinatzaile teknikoa

Kontratistak Kudeaketa lana, 3. atalean azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du beti ere Azpeitiko Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan. Horretarako kontratuaren koordinatzaile izango den pertsona bat atxikitu beharko du. Kontratuaren koordinatzailea eta kontratuaren arduraduna pertsona bera izan ahalko da.

Beharra sortzen den bakoitzean, ludotekako, gaztelekuko, oporraldietako ekintza berezietako, hezitzaile eta koordinatzaile programaketa, proiektuak e.a. aurkeztuko ditu Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordean.

Koordinatzaile teknikoak zerbitzu bakoitzarekin lotuta eta elkarlana optimizatzeko honako betebeharrak izango ditu:

- Ekipamendu ezberdinen eta instalazioen funtzionamendua bermatzea Udalarekin koordinatuta.
- Antolatzen diren ekimenen propaganda, izen emate eta aukeraketak bideratzea Udalak ipinitako irizpideak jarraituz.
- Gazteria arloarekin lotuta dauden herriko elkarte kulturalekin harremanetan egotea.
- Herriko arlo ezberdinetan antolatuko diren programen garapenean parte hartzea: kultura, kirola, festak, gizarte zerbitzuak...
- Haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lotutako beste udal erakundeekin harremanak mantentzea.
- Ludoteken eta gaztelekuaren funtzionamenduaren jarraipen zuzena egitea helburuak zehazten, programaketa planifikatzen, eta ebaluaketa egitea Udalarekin adostutako moduan.
- Memoria, txostenak eta parte-hartze agiriak egin eta betetzea.
- Azpeitiko haur eta nerabeen behar eta eskaerak bideratzea.
- Zerbitzuen ebaluaketan parte hartzea Udalarekin elkarlanean.

- Dagozkion betebehar administratiboak egitea.

- Udalean sortzen diren haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lotutako ekimenak kudeatzea.

- Foru Aldundiak Gaztematika arloan luzatutako bilera eta formazio saioetan parte hartzea.

Zerbitzu guztientzako betebeharrak (ludoteka, gaztelekua eta oporraldietako ekintza bereziak)

1. Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen Plegu honetan ezarritakoaren arabera bete behar da kontratua.

2. Esleipen honen xede den jarduera burutzeko Udalak emandako aginduak bete egin behar dira, eta oso bereziki Udaleko Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordeak emandakoak.

3. Kontratua betetzen hasi aurretik, kontratistak erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu beharko du aseguru etxeren batekin, kontratu honetan zehazten diren jarduerak burutzeak dakartzan arriskuak estaltzeko. (plegu administratiboetan zehazten dira ezaugarriak)

10.- ZERBITZUEN MAIZTASUNA. HERRITARREI IREKITZEA

10.1. LUDOTEKAK

Haurrei zabalik (arreta zuzena) ikasturte hasieratik amaiera bitartean egongo da, astelehenetik ostiralera eta 17:00etatik 20:00etara. Lan- egutegiaren zehaztapen guztiak Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordearekin adostuko dira ikasturtearen hasieran, eskola egutegiak kontuan izanda. Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporretan itxirik egongo da; egun horietan ekintza bereziak antolatuko direlako.

10.2. GAZTELEKUA

Urte osoan zehar eta Hezkuntza zerbitzuarekin adostutako egutegian, asteartetik larunbatera izango da zabalik Gaztelekua. Itxita egongo da astelehen eta igandeetan. Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporretan ekintza bereziekin uztartuko da gaztelekuaren irekiera.

Irekita mantenduko den ordutegia honakoa izango da:

Asteartetik ostegunera (astelehenetan itxita): 17:00etatik 20:00etara

Ostiraletan: 16:30tatik 20:00etara. Larunbatetan 17:00etatik 20:30etara

10.4. OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK

Aurrez eta urtean zehar ekintza edo irteerak programatuko dira gutxienez, jarraian zehazten diren oporraldietan:

Aste Santuetako oporretan edo Pazko astean (ikastetxeen egutegiaren arabera; 4 egunez)

Udako oporretan: Haurrak eta nerabeak oporrak hartu ondoren, programa eta egutegi ezberdinak eskainiko dira adin tarte bakoitzari eskainita (20 egunez)

Ekaina bukaeran hasi eta uztaila bukatu bitartean izango dira (ikusi eranskina)

Gabonetako oporretan: Haur eta nerabeek oporrak dituzten egunetan antolatuko dira ekintza ezberdinak adin tarte ezberdinari egokitua (5 egunez)

Goizeko ekintzek ordutegi hau beteko dute: 10:00tatik 13:00tara.

Irteerak ordutegi hau beteko dute: 10:00tatik 17:30tara.

Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete Azpeitiko Udaleko Festak, Gazteria eta Hezkuntza batzordeak hala eskatuz gero.

11.- KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO LANAK

Zuzeneko arretaz gain, enpresa kontratistak honako kudeaketa eta koordinazio lanak burutu beharko ditu:

- Prestatze lanetarako, koordinazio bileretako eta, bestelako zereginetarako (formazioa, ez-ohiko bilerak...) izango dira.

- Gaztelekuko zerbitzua betetzeko (bereziki larunbat arratsaldeak betetzeko) edo errefortzu lanak

- Negu partean bereziki, jolas-gune estali moduan erabiltzeko eskakizuna burutzen den kasuetan begirale-zaintza lanak burutzea.

- Haur kontseiluko saioen aurre prestaketa, lanketa, saioen jarraipena eta koordinazioa Udaleko Hezkuntza Zerbitzutik horrela eskatzen den heinean.

- Aste bakoitzeko hezitzaile lanak Urrestillako bi lokaletan burutzeko, bata 0-6 bitarteko haurrei zuzendua, bestea 7-14 urteko gazteei zuzendua. Astean behin, 17:30tatik 19:30ra.

Gazte lokaleko erabiltzaileei arreta zerbitzua eman.

- Hala badagokio eta eskakizunen arabera, gazte lokaletan, hezitzaile lanak gauzatzea.

Formakuntza jarduerei lotutako klausula:

-Enpresa kontratistak ekitaldi bakoitzeko hasieran beren enplegatuen formakuntza plana aurkeztuko dute, non, proiektu bakoitzari lotuta (Ludoteka, Gazteleku eta oporretako ekintzak) prestakuntza jardueren egutegi bat barneratuko den.

-Plangintza honek, beti ere, zerbitzu bakoitza egoki betetzea eta etengabeko hobekuntza ahalbideratuko du, beti ere, lehentasuna zerbitzuan berarengan mantenduz. Beti ere, zerbitzua egoki betetzeak izango du lehentasuna: egokitasun horretan barneratzen dira, zuzeneko arreta zerbitzuak eta barne lanak aurrera ateratzea.

-Formakuntza ikastaroak lotura zuzena izango dute kontratu honen xede edo helburuarekin.

- Formakuntza jardueretara bertaratzeko bidaiei dagozkion dietak Azpeitiko Udalaren kargura izango dira aurrez onartu ondoren eta dagokion faktura aurkeztu ondoren.

12.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

12.1.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

12.1.1. LUDOTEKAK

Udalak done Jakue kalea 1eko eta Jose Antonio Agirre Plaza 2-3ko eraikuntzetan kokatutako lokalak eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (ludotekaren eta bulegoaren altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

12.1.2.GAZTELEKUA

Izarraitz pilotalekuan (Goikokalea, 12) Udalak horretarako egokitu duen lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (bulegoaren altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da

12.1.3 OPORRALDIETARAKO EKINTZA BEREZIAK

Herrian zehar eta herriko instalazio ezberdinetan gauzatuko dira ekintza bereziak, Udalak horiek aurrez ikastetxeekin eta udal instalazioen arduradunekin adostuta Udala, egoitza erabilpenari dagokion kosteaz arduratuko da.

Erabilitako instalazioak eta oinarrizko ekipamendua egoera onean mantendu beharko dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Kalterik gertatzen bada, kontratistaren kontura izango dira kostuak.

12.2.- GIZA BALIABIDEAK: KOPURUA, LAN ORDUAK eta PROFILA

Kontratistak 10. klausulan jasota dagoen arreta zuzeneko egutegiko ordutegia betetzeko eta gainontzeko kudeaketa edo koordinazio lanak burutzeko, bere lantaldean, gutxienez honako langile hauek jardun beharko dute:

12.2.1. ZERBITZUAREN KOORDINAZIO TEKNIKOA

Zerbitzua behar bezala garatzeko, kontratistak koordinatzaile bat jarri beharko du, eta arduradun hori izango da baliozko solaskidea kontratuaren xede den zerbitzua ematearekin zerikusia duten kudeaketa-mota guztiak Udalarekin egiteko.

Pertsona honen funtzioak eta betebeharrak **Kontratuaren koordinatzaile teknikoa atalean** zehazten dira.

KOORDINATZAILEAren profila, gutxienez, honako hau izango da:

Gizarte Hezitzaile Graduko ikasketek izatea edo Hezkuntza edo Gizarte arloko Elkargoetako gaikuntza izatea, edo erdi mailako edo goi mailako unibertsitate ikasketak (Pedagogia, Gizarte Lana, Psikologia eta Magisteritza).

Hezkuntza ez formalaren esparruan gaudenez HBAZ bezalako Zerbitzu Publiko batetik, haurrekin norberaren garapena eta gizarte ehundurak landu behar dira, aisialdiaren denboran hezkuntza helburu pedagogikoak dituzten jarduera eta proiektuak gauzatzeko. Adin tarte hauetako erabiltzaileen ezagutza sakona izatea beharrezkoa da, horrela bermatuko baita zerbitzura eta bertatik proposatutako ekimenetara hurbildutako erabiltzaileen progresioa.

- Goian aipaturiko formakuntzaz gain haurrekin lotutako proiektuetan 2.000 orduko esperientzia ziurtatuko du.

12.2 2. LUDOTEKA

Ludoteka bakoitzean (bi) ikasturtean zehar, 2 hezitzaile batera aritu beharko dira (guztira 4), gutxienez honako ordu kopuruekin:

- Bakoitzak 28 ordu astero.
- 15 ordu ludoteka irekita dagoen bitartean.

Gainerako orduak ondorengo 11. klausulan zehaztutako kudeaketa eta koordinazio lanak burutzera dedikatuko dira.

Hezitzaileen profila honako hau izango da:

- Hezitzaileek xedearen antzeko lanetako eskarmentua izatea.
- Hezitzaileen titulazioa gutxienez honako hau izango da:

Gizarte Heziketako Gradua izatea edo Hezkuntza edo Gizarte arloko Elkargoetako gaikuntza izatea, edo erdi mailako edo goi mailako unbiertsitate ikasketak (Pedagogia, Gizarte Lana,Psikologia eta Magisteritza) edo, EAEko araudiaren arabera, aisialdiko monitore titulua edo Animazio Soziokulturaleko eta Turistikoko goi-mailako teknikaria.

Hezkuntza ez formalaren esparruan gaudenez HBAZ bezalako Zerbitzu Publiko batetik, haurrekin norberaren garapena eta gizarte ehundurak landu behar dira, aisialdiaren denboran hezkuntza helburu pedagogikoak dituzten jarduera eta proiektuak gauzatzeko. Adin tarte hauetako erabiltzaileen ezagutza sakona izatea beharrezkoa da, horrela bermatuko baita zerbitzura eta bertatik proposatutako ekimenetara hurbildutako erabiltzaileen progresioa.

-Goian aipaturiko formakuntzaz gain, haurrekin lotutako proiektuetan 400 orduko esperientzia izan ziurtatuko dute.

12.2.3. GAZTELEKUA:

Ikasturtean zehar, 3 hezitzaile batera aritu beharko dira, gutxienez honako ordu kopuruekin:

- 2 hezitzaile 28 ordu astero.
- 3. hezitzaile bat ostiral eta larunbatetan errefortzu moduan aritu beharko da, gutxienez 20 orduko jardunarekin.
- 4. hezitzailea 16 ordu Urrestillako haur eta nerabeen txokoa dinamizatzen.
- Gainerako orduak ondorengo 11. klausulan zehaztutako kudeaketa eta koordinazio lanak burutzera dedikatuko dira.

Hezitzaileen profila honako hau izango da gutxienez:

Gizarte Heziketako Gradua izatea edo Hezkuntza edo Gizarte arloko Elkargoetako gaikuntza izatea, edo erdi mailako edo goi mailako unibertsitate ikasketak (Pedagogia, Gizarte Lana,Psikologia eta Magisteritza) edo, EAEko araudiaren arabera, aisialdiko monitore titulua edo Animazio Soziokulturaleko eta Turistikoko goi-mailako teknikaria.

Hezkuntza ez formalaren esparruan gaudenez HBAZ bezalako Zerbitzu Publiko batetik, haurrekin norberaren garapena eta gizarte ehundurak landu behar dira, aisialdiaren denboran hezkuntza helburu pedagogikoak dituzten jarduera eta proiektuak gauzatzeko. Adin tarte hauetako erabiltzaileen ezagutza sakona izatea beharrezkoa da, horrela bermatuko baita zerbitzura eta bertatik proposatutako ekimenetara hurbildutako erabiltzaileen progresioa.

Goian aipaturiko formakuntzaz gain, haurrekin lotutako proiektuetan 600 orduko esperientzia izan ziurtatuko dute.

Zerbitzu ezberdinen koordinazioa eta kudeaketa Gazteria koordinatzaile teknikariaren ardurapean egongo da, gutxienez honako ordu kopuruarekin:

36,5 ordu astean, lanaldi osoz.

Adin txikikoen babes juridikoari buruzko1/1996 Lege Organikoak(uztailaren 28ko 26/2015 Legeak gehitutako 13.artikuluko 5. atala) xedautakoaren arabera, zerbitzu bakoitzean adin txikikoekin lan egingo duten langileek Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiko ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko dute.

12.2.3.OPORRALDIETAKO EKINTZA BEREZIAK:

Oporraldietako ekintza bereziak antolatzeko garaian Ekainaren 25eko 170/1985 dekretua, neska- mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea arautzen duen arautegia jarraitu beharko du esleipendunak.

Kontratistak, ekintza bakoitzerako izen ematen duten haur kopuruaren baitan edo egoki izan daitezkeen bestelako hainbat arrazoirengatik arduradunak eta begiraleak kontratatu beharko ditu.

- Haur Hezkuntzako haurrekin dauden begiraleek gehienez 10 haur izango dituzte beraien ardurapean, Haur Hezkuntza 2-ko haurrekin dauden begiraleek aldiz gehienez 8 haur izango dituzte beraien ardurapean.

- Lehen Hezkuntzakoekin daudenak 12 haur izango dituzte beraien ardurapean.

- Programatutakoa ezintasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten haurrei egokitu behar zaie. Beharrezko kasuetan hauentzako begirale espezifikoa jarri beharko da.

- Beharrezkoak diren langileak kontratatzea eta Gizarte Segurantzan alta ematea.

- Gai laboral, fiskal eta Gizarte Segurantza aldetik indarrean dauden xedapenak bete behar dira.

- Udalak emandako jarraibideak betetzea.

- Udalekuak baino lehen, gurasoei zuzendutako bilera informatiboa antolatuko da, udalekuen programazioaren berri emango zaie bertan gurasoei (datak, irteerak, begiraleak eta taldeak...).

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

